A estos efectos, el Instituto Foral de la Juventud dispondrá la colocación a sus expensas de tabloneros de anuncios para la exposición con carácter exclusivo para los órganos de representación electos, de cualquier información del tipo anteriormente reseñado, en todos los centros de trabajo pertenecientes al Instituto Foral de la Juventud, en lugares adecuados y visibles dentro de los mismos. El número, tamaño y distribución de dichos tabloneros será el adecuado a las dimensiones y estructura del centro de forma que se garantice la publicidad más amplia de lo que en ellos se exponga.

Asimismo, la autoridad o el órgano competente del Instituto Foral de la Juventud deberá facilitar a los órganos de representación electos la utilización de medios y materiales de trabajo para la confección de las informaciones antes citadas, siempre que se efectúe de forma racional y moderada y no se perjudique al normal funcionamiento o a la dotación material de los servicios.

c) No poder ser sancionados disciplinariamente ni discriminados en su trabajo, promoción económica o profesional, ni trasladados con carácter forzoso en razón precisamente del desempeño de su representación, durante su mandato, ni dentro de los dos años siguientes a la expiración del mismo.

d) Disponer de 30 horas mensuales de las correspondientes a su jornada de trabajo, sin disminución de sus retribuciones, para el ejercicio de sus funciones de representación.

Asimismo, el miembro del órgano de representación electo que ejerza el cargo de Presidente (o Secretario) del mismo, podrá disponer de 5 horas mensuales adicionales, para atender a dicho cargo.

En el cómputo de las dos clases de asignaciones horarias expuestas se excluirá el tiempo invertido en la asistencia a sesiones de comisiones informativas u órganos del Instituto Foral de la Juventud o a reuniones por ésta promovidas y a negociaciones colectivas de ámbito funcional del Instituto Foral de la Juventud.

e) Utilizar para su actividad un local facilitado al efecto por el Instituto Foral de la Juventud cuyas características y equipamiento satisfagan las diversas necesidades que en cuanto a capacidad, dotación material y ubicación física pudieran presentarse.

f) Serles admitida su abstención o acusación en el supuesto de ser designados como Instruktorre o Secretario en un expediente disciplinario.

Artículo 136.- Capacidad

Los órganos de representación electos tendrán capacidad jurídica para ejercer acciones administrativas o judiciales en todo lo relativo al ámbito de sus competencias por decisión mayoritaria de sus miembros.

Artículo 137.- Competencias

Los órganos de representación electos tendrán las siguientes competencias:

a) Recibir la más completa información de los asuntos que afecten al personal del Instituto Foral de la Juventud, ello por conducto de los responsables de personal de la misma.

b) Investigar e informarse, por iniciativa propia de todas las cuestiones que afecten al personal del Instituto Foral de la Juventud, disponiendo a tal fin de libre acceso, consulta y reproducción gratuita de toda la documentación relativa a dichas cuestiones, por simple comparecencia y manifestación verbal sin que sea preciso formular solicitudes u obtener autorizaciones por escrito al efecto.

En este sentido, los jefes de las dependencias o servicios en que obre documentación relativa a dichos asuntos, vendrán obligados a facilitarla permitiendo su consulta y reproducción, sin perjuicio de las garantías que se estime oportuno adoptar para evitar el extravío

lanbide-erreserbaren betebeharra ez betetzeagatik izan ditzaketen erantzukizunak bazter utzi gabe ere.

c) Langileen arloari, laneko segurtasun-baldintzen eta laneko Segurtasun- eta Higiene-baldintzen arloari, bertaratzeari, segurtasunari eta gizarte-aurreikuspenari buruzko araubidearen inguruko gaiak –Gazteriaren Foru Erakundearen eskumeneko gaiak- Gazteriaren Foru Erakundeko ebazpen organoen aurrean proposatzea eta negoziatzea, langileen arduradunaren bitartez eta Hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera.

d) Administrazio-prozedura osatzeko prestaketa-lanetan parte hartzea eta esku hartzea, hartara aurreko c) letran eta Hitzarmenean aipatutako gaietan edozein erabaki hartzeko.

LANGILEEK PARTE HARTZEKO DUTEN ESKUBIDEARI BURUZ

138. artikulua.-

Langileek, atal sindikalen edota hautatutako ordezkari-tza-organoen bitartez, administrazio-borondatea osatzeko prozesuaren prestaketa-fasean parte hartzeko eskubidea izango dute; honako helburu hauekin: langileen inguruko edozein erabaki hartzea, laneko segurtasun- eta higiene-baldintzei buruzko edozein ebazpen egitea, eta bertaratzeari, segurtasunari eta gizarte-aurreikuspenari buruzko araubidea egitea, izenburu honen VI. Kapituluan xedatutakoaren arabera eta Gazteriaren Foru Erakundearen eskumenekoak diren neurrian.

139. artikulua.-

Aurreko artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, Gazteriaren Foru Erakundeak eta langileek izendatuko dituzte hizketakideak.

140. artikulua.-

Langileen ordezkari-tza 129. artikuluan adierazitako gutxieneko ordezkari-tza-maila duten hautatutako ordezkari-tza-organoei edota Atal Sindikalei osatuko dute. Langileen ordezkari-tza Atal Sindikalei osatuko dute. Langileen ordezkari-tza Atal Sindikalei osatuko dute, orokorrean hautatutako ordezkari-tza-organoei osatuko aukera edukiko dute, orokorrean direnean edo gutxienez Gazteriaren Foru Erakundeko langileen % 50en babesa eskuratzen dutenean.

141. artikulua.-

Gazteriaren Foru Erakundeko ordezkari-tza hautatutako ordezkari-tza-organoei edota Atal Sindikalei izango dituzten bilerak, hilabetean behin egingo dira, gutxienez.

142. artikulua.-

Hautatutako ordezkari-tza-organoei edota Atal Sindikalei aurreko artikuluan adierazitako bileren gai-zerrendaren eraketan parte hartzeko eskubidea izango dute, nahi dituzten gaiak gehituz. Era berean, bilera egin baino gutxienez berrogeita zortzi ordu lehenago jakinaraziko da azken gai-zerrenda zein izango den; eta gai guzti-ekin zerikusia duen (ezagutzari eta ikerketei dagokienez) dokumentazio guztia ere emango da.

143. artikulua.-

Hautatutako ordezkari-tza-organoei edota Atal Sindikalei aurreko artikuluan azpimarraturiko nahi adina gai utz ditzakete mahai gainean, zerikusia izan dezaketelako, beren ustez sakonki aztertu behar direlako edo txosten sakonagoa behar dutelako, beren ustez datuak falta direlako, edota ebazpen zuzenerako garrantzitsuak izan daitezkeen aurrekariak falta direlako.

Eskubide hori hamabost eguneko epean gauzatu ahal izango da.

144. artikulua.-

Hautatutako ordezkari-tza-organoa ez badago Gazteriaren Foru Erakundeko ordezkari-irizpidearekin ados, Batzorde Misto Paritarioari galdetuko zaio bi alderdiak ados jarri ondoren.

145. artikulua.-

Nolanahi ere, langileen ordezkari-ekin dituzten desadostasunak oinarritzen diren edozein motatako argudioak adierazi ahal izango dituzte bileraren aktan, edo irizpenaren azalpen-partean, edo gai

de los documentos, así como de las responsabilidades en que los solicitantes pudieran incurrir por incumplimiento del deber de reserva profesional.

c) Plantear y negociar ante los correspondientes órganos resolutorios del Instituto Foral de la Juventud, por conducto del responsable de personal, cuantos asuntos proceden en materia de personal, condiciones de Seguridad e Higiene en el desarrollo del trabajo y régimen de asistencia, seguridad y previsión social, en lo que sea competencia de la Instituto Foral de la Juventud conforme a lo dispuesto en el presente Convenio.

d) Participar e intervenir en la fase preparatoria del proceso de formación de la voluntad administrativa orientada a la adopción de cualquier resolución en la materia aludida en la letra c) anterior y en el Convenio.

DEL DERECHO DE PARTICIPACIÓN DE LOS/AS TRABAJADORES/AS

Artículo 138.-

Los/as trabajadores/as a través de las Secciones Sindicales y/o los órganos de representación electos tendrán derecho a participar en la fase preparatoria del proceso de formación de la voluntad administrativa orientada a la adopción de cualquier resolución en materia de personal, condiciones de seguridad e higiene en el desarrollo del trabajo y régimen de asistencia, seguridad y previsión social, en lo que dispuesto en el capítulo VI de éste título, sea competencia del Instituto Foral de la Juventud.

Artículo 139.-

A efectos de lo señalado en el artículo anterior, el Instituto Foral de la Juventud designará sus interlocutores con los/as trabajadores/as.

Artículo 140.-

La representación de los/as trabajadores/as la ostentarán los órganos de representación electos y/o las Secciones Sindicales que ostenten la representatividad mínima señalada en el artículo 129. La representación de los/as trabajadores/as podrá estar constituida con carácter exclusivo, por las Secciones Sindicales cuando, en su conjunto, sumen la mayoría de miembros de los órganos de representación electos o estén respaldadas por el 50%, al menos, de los/as trabajadores/as del Instituto Foral de la Juventud.

Artículo 141.-

Las reuniones que los representantes del Instituto Foral de la Juventud celebren con los órganos de representación electos y/o las Secciones Sindicales tendrán lugar, al menos, con una periodicidad mensual.

Artículo 142.-

Los órganos de representación electos y/o las Secciones Sindicales tendrán derecho a participar en la elaboración del orden del día de las reuniones señaladas en el artículo anterior, pudiendo incluir cuantos temas consideren oportunos. Asimismo, serán notificados formalmente del orden del día definitivo de la reunión inmediata siguiente con una antelación mínima de cuarenta y ocho horas, poniendo simultáneamente a su disposición toda la documentación relativa a los asuntos incluidos, a efectos de su conocimiento y estudio.

Artículo 143.-

Los órganos de representación electos y/o las Secciones Sindicales podrán dejar sobre la mesa aquellos asuntos referentes a las mismas señaladas en el artículo anterior que a su juicio requieran un más detenido examen y/o emisión de informe o cuando se considere que faltan datos o antecedentes de importancia para la correcta resolución de los mismos.

Este derecho se podrá ejercitar durante un plazo no superior a quince días.

Artículo 144.-

En caso de que exista disconformidad de los órganos de representación electos con el criterio de los representantes del Instituto Foral de la Juventud, de mutuo acuerdo se podrá elevar a consulta a la Comisión Mixta Paritaria.

Artículo 145.-

En cualquier caso, los representantes de los/as trabajadores/as podrán hacer constar, tanto en el acta de la reunión como en la parte expositiva del dictamen o informe que emitan al respecto los repre-

horren inguruan Gazteriaren Foru Erakundeko ordezkariak egiten duten txostenean.

LANGILEEK BILTZEKO DUTEN ESKUBIDEARI BURUZ

146. artikulua.-

Gazteriaren Foru Erakundeko langileek elkarrekin biltzeko eskubidea erabili ahal izango dute, kapitulu honetan adierazitako betebeharrak eta baldintzekin.

147. artikulua.-

Sindikatu Atal baten kide diren langileak lanaldian bildu ahal izango dira, beren ordainsariei inola ere utzi gabe, urtean 8 orduz gehienez ere.

148. artikulua.-

Sindikatu Ordezkariek deitu ahal izango dituzte Atal Sindikaleko kideen bilerak.

149. artikulua.-

Langile guztiak lanaldian bildu ahal izango dira, ordainsariak inola ere bazter utzi gabe, urtean hamabi orduz gehienez ere.

150. artikulua.-

Honako hauek dute Gazteriaren Foru Erakundeko langileen bilerak deitzeko eskubidea:

1. Erakunde Sindikalek, zuzenean nahiz Ordezkaritza Sindikalen bitartez.

2. Hautatutako ordezkarietako organoak.

3. Edozein langilek, baldin eta gutxienez eraginpean hartutako kolektiboaren % 40 badira.

151. artikulua.-

Sindikatu Atal bateko afiliatuen edo langile guztien bilera egiteko baldintzak honako hauek dira:

a) Berrogeita zortzi orduko aurrerapenarekin egitea, salbuespenezko kasuetan izan ezik.

b) Bilera egiteko ordua eta lekua adieraztea.

c) Bilera deitzeko baimena dutela egiaztatzen duten sinatzaileen datuak igortzea.

d) Baimen-eskaera egin eta ondorengo hogeita lau orduetan Gazteriaren Foru Erakundeko Zuzendari-Gerenteak horri buruzko idazki bidezko eragozpenik ez badu egiten, bestelako baldintzarik gabe egingo da bilera.

152. artikulua.-

Bilerak orokorrak izan daitezke edo zerbitzuen, bulegoen edo lantokien arabera egin ahal izango dira.

153. artikulua.-

Lanalditik kanpo bilerak egiteko ez da inolako mugarik izango, baina honako hauek kontuan hartuko dira: instalazioen eta bulegoen segurtasuna, eta bilerak egin behar diren tokiak une horretan zabalik egotea edo zabaltzeak eragozpen handirik ez ekartzea.

LANGILEEK NEGOZIAZIO KOLEKTIBORAKO DUTEN ESKUBIDEARI BURUZ

154. artikulua.-

Langileek eskubidea izango dute lan-baldintzak zehazten direnean parte hartzeko, kapitulu honetako hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera.

155. artikulua.-

1. Langileek beren lan-baldintzak zehazteko garaian parte hartu ahal izan dezaten, negoziazio-mahaia eratuko da eta mahai horretako partaideak Gazteriaren Foru Erakundeko ordezkariak eta Enpresa Batzordeko kideak izango dira. Horiek guztiak aholkulariekin bertaratu ahal izango dira.

2. Mahai horrek Gazteriaren Foru Erakundeko langileen lan-baldintzak arautzeko Hitzarmen erregulatzailaren proposamena negoziatuko du.

156. artikulua.-

Gazteriaren Foru Erakundeari eragiten dioten negoziazioen ordezkarietza instituzionalizatzeko honako irizpide hauei jarraituko zaie:

1. Negoziatio-mahaiaren osaera paritarioa izango da.

2. Mahaiaren erabakiak mahaia osatzen duten kideen gehiengoz hartuko dira.

3. Akordioek mahaiko alderdi bakoitzeko botoen gehiengoa eskatuko dute; langileen aldetik ordezkarietza-ehunekoa langileen batzordean edukiko den ehunekoaren baliokidea izango da.

sentantes del Instituto Foral de la Juventud, los argumentos de cualquier índole en que se fundamenten sus discrepancias.

DEL DERECHO DE REUNIÓN DE LOS/AS TRABAJADORES/AS

Artículo 146.-

El personal del Instituto Foral de la Juventud podrá ejercitar el derecho de reunión con los requisitos y condiciones señalados en este capítulo.

Artículo 147.-

Los/as trabajadores/as miembros de una Sección Sindical podrán reunirse, sin perjuicio alguno de sus retribuciones, durante la jornada de trabajo, durante un máximo de 8 horas anuales.

Artículo 148.-

Están legitimados para convocar reuniones de los afiliados/as a una Sección Sindical los correspondientes Delegados Sindicales.

Artículo 149.-

El personal en su conjunto podrá reunirse, sin perjuicio alguno de sus retribuciones, durante la jornada de trabajo, hasta un máximo de doce horas anuales.

Artículo 150.-

Están legitimados para convocar reuniones del personal del Instituto Foral de la Juventud en su conjunto:

1. Organizaciones Sindicales, directamente o a través de los Delegados sindicales.

2. Organos de representación electos.

3. Cualesquiera trabajadores/as, siempre que su número no sea inferior al 40% del colectivo afectado.

Artículo 151.-

Los requisitos para celebrar una reunión de los afiliados/as a una Sección Sindical o del personal en general son los siguientes:

a) Formular con una antelación mínima de cuarenta y ocho horas, salvo en casos excepcionales.

b) Señalar la hora y lugar de celebración.

c) Remitir datos de los firmantes que acrediten estar legitimados para convocar la reunión.

d) Si en el plazo de veinticuatro horas siguientes a la fecha en que se registró la solicitud de autorización, el Director-Gerente del Instituto Foral de la Juventud no formulara objeciones, por escrito, al respecto, podrá celebrarse sin otro requisito posterior.

Artículo 152.-

Las reuniones podrán tener carácter general o realizarse por servicios, dependencias o centros de trabajo.

Artículo 153.-

No existirá ningún tipo de limitación para celebrar reuniones fuera de la jornada de trabajo, salvo la seguridad de instalaciones y dependencias y que su realización tenga lugar cuando se encuentren abiertos los lugares de reunión o su apertura no suponga dificultades importantes.

DEL DERECHO DE NEGOCIACIÓN COLECTIVA DE LOS/AS TRABAJADORES/AS

Artículo 154.-

Los/as trabajadores/as, tendrán derecho a la participación en la determinación de las condiciones de trabajo conforme a lo dispuesto en los siguientes artículos de este capítulo.

Artículo 155.-

1. A fin de posibilitar la participación de los/as trabajadores/as en la determinación de sus condiciones de trabajo, se constituirá una Mesa de negociación en la que estarán presentes los representantes del Instituto Foral de la Juventud y los miembros del Comité de Empresa, los cuales podrán estar acompañados de asesores.

2. Esta Mesa negociará la propuesta de Convenio regulador de las condiciones de empleo de los/as trabajadores/as del Instituto Foral de la Juventud.

Artículo 156.-

Al objeto de institucionalizar la representatividad en las negociaciones que afecten al Instituto Foral de la Juventud, se seguirán los siguientes criterios:

1. La composición de la mesa de negociación será paritaria.

2. Las decisiones de cada parte de la mesa se tomarán por mayoría.

3. Los acuerdos exigirán el voto favorable de la mayoría de cada parte en la mesa; por la parte social el porcentaje de representatividad será equivalente al que se tenga en el comité de trabajadores/as.

X. KAPITULUA DIZIPLINA ARAUBIDEA

157. artikulua.- Diziiplina-araubidea

Gazteriaren Foru Erakundearen zerbitzura lan egiten duten langileek dituzten betebeharrak eta zereginak betetzen ez badituzte hutsegitezat hartuko dira eta Hitzarmen honetan aurreikusitakoaren arabera zigortu ahal izango dira, Hitzarmenean ezartzen den prozedurari jarraiki.

1. Hutsegiteak.

Lan-kontratupeko langileen diziiplina-zigorrek arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

A) Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legearen 85. artikuluan ezarritakoak izango dira hutsegite arinak.

B) Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legearen 84. artikuluan ezarritakoak izango dira hutsegite larriak.

C) Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legearen 83. artikuluan ezarritakoak izango dira hutsegite oso larriak.

2. Zigorrek.

A) Egindako hutsegiteen arabera, honako zigor hauek jarri ahal izango dira:

- Diziplinazko kaleratzea.
- Enplegua eta soldata etetea.
- Ohartarazpena.

Kaleratzeko zigorra hutsegite oso larriak egiteagatik soilik jarriko da.

Enplegua eta soldata etetearen zigorrek hutsegite larriak edo oso larriak egiteagatik soilik jarri ahal izango dira.

Hutsegite oso larria egiteagatik enpleguaren eta soldataren etetea ez da lau urtetik gorakoa izango, ezta bi urtetik beherakoa ere. Hutsegite larria egiteagatik jartzen bada, aldiz, ez da bi urtetik gorakoa izango.

Hutsegite arinak ohartarazpen-zigorrarenean bidez baino ezin izango dira zuzendu.

Diziiplina-zigor baten ondorioz plantillako langile finko bat kale-ratzen bada, bere lanpostura itzultzeko eskubidea bermatuko zaio epai irmoak kaleratzea bidegabetzat hartzen badu eta epai irmoak langilea berriz ere hartzeko aukera eskaintzen badu.

B) Zigortzeko prozedura:

Hutsegitearen larritasuna zenbaterainokoa ote den zehazteko eta jarriko den zigorra mailakatzeko, honako elementu hauek hartuko dira kontuan:

- Intenzionalitatea.
- Zerbitzuari eragindako nahasmendua.
- Administrazioari edo administratuei eragindako kalteak.
- Berrerortzea.
- Parte-hartze maila.

Hutsegite larri eta oso larriengatik jarritako zigorrek kontraesaneko espedienteaz izapidetzea eskatuko dute. Izapidetzearen hasiera langileen ordezkarietara eta interesdunari jakinaraziko zaie. Interesdunak entzunaldia izango du, eta bertan, langileen ordezkarietara hitz egin ahal izango dute.

Hutsegite arinen ondorioz zigorrek ezartzeko orduan, derrigorrezkoa izango da aldeaz aurretik espedienteaz bideratzea, eruztatuari entzuteko izapidea izan ezik.

Langileen ordezkarien organoek eskatutako edota salatutako espedienteak ezin izango dira artxibatutako langileen ordezkarien organoari entzun gabe.

Hutsegite arinak hamar egunera preskribatuko dira, larriak hogei egunera, eta oso larriak hirurogei egunera, Gazteriaren Foru Erakundeak hutsegitearen berri izandako egunetik zenbatzen hasita, eta nolahi ere, hutsegitea egin eta handik sei hilabetera. Dena den, epe horiek instrukzioko espedientearen berezko ekintza orok eten ahal izango ditu, betiere iraupenak, orokorki hartuta, ez baditu hiru hilabete gairatzen. Momentu horretan preskripzio-epeak aurrera egingo du.

Xedapen gehigarriak.-

1. Hitzarmena, erabat edo hein batean, aldatzeko aukera dago negoziazio-mahai guztiak iritzi bera badu, nabarmentzen diren prozeduren eta momentu bakoitzean indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera.

CAPITULO X RÉGIMEN DISCIPLINARIO

Artículo 157.- Régimen disciplinario

El incumplimiento de las obligaciones y deberes propios del personal al servicio del Instituto Foral de la Juventud constituirá falta y dará lugar a las sanciones previstas en el presente Convenio de conformidad con el procedimiento que en el mismo se establece.

1. Faltas.

Las faltas disciplinarias de personal laboral podrán ser leves, graves y muy graves.

A) Serán faltas leves las establecidas en el artículo 85 de la Ley 6/89, de la Función Pública Vasca.

B) Serán faltas graves las establecidas en el artículo 84 de la Ley 6/89, de la Función Pública Vasca.

C) Serán faltas muy graves las establecidas en el artículo 83 de la Ley 6/89 de la Función Pública Vasca.

2. Sanciones.

A) Por razón de las faltas cometidas podrán imponerse las siguientes sanciones,

- Despido disciplinario.
- Suspensión de empleo y sueldo.
- Apercibimiento.

La sanción de despido se impondrá únicamente por la comisión de faltas muy graves.

Las sanciones de suspensión de empleo y sueldo sólo podrán imponerse por faltas muy graves o graves.

La suspensión de empleo y sueldo impuesta por falta muy grave no podrá exceder de cuatro años ni ser inferior a dos, y si se impone por falta grave no podrá ser superior a dos años.

Las faltas leves sólo podrán ser corregidas con la sanción de apercibimiento.

Todo trabajador/a perteneciente a la plantilla de personal laboral fijo que sea despedido/a como consecuencia de una sanción disciplinaria, tendrá garantizada la reincorporación a su puesto de trabajo en el caso de que el despido sea declarado improcedente en sentencia firme y ésta ofrezca la opción de la readmisión.

B) Procedimiento sancionador:

Para la determinación de la mayor o menor gravedad de la falta, así como para graduar la sanción a imponer, se tendrán en cuenta los siguientes elementos:

- Intencionalidad.
- Perturbación del servicio.
- Daños producidos a la Administración o a los administrados.
- Reincidencia.
- Grado de participación.

Las sanciones por faltas graves y muy graves requerirán la tramitación de expediente contradictorio, cuya iniciación se comunicará a los representantes de los/as trabajadores/as y al interesado dándosele audiencia a éste y siendo oídos aquellos en el mismo.

Para la imposición de sanciones por faltas leves no será preceptiva la previa instrucción de expediente, salvo el trámite de audiencia al inculpado.

Los expedientes incoados a instancia y/o denuncia de los órganos de representación del personal, no podrán ser sobreseídos sin ser oído el citado órgano de representación del personal.

Las faltas leves prescribirán a los diez días, las graves a los veinte días y las muy graves a los sesenta días, a partir de que el Instituto Foral de la Juventud tenga conocimiento de su comisión y, en todo caso, a los seis meses de haberse cometido. Dichos plazos quedarán interrumpidos por cualquier acto propio del expediente instruido en su caso, siempre que la duración de éste en su conjunto no supere los tres meses, momento en el que correrá de nuevo el plazo de prescripción.

Disposiciones adicionales.-

1. El Convenio, en todo o en parte, podrá modificarse por voluntad concorde de la Mesa negociadora, con arreglo a los procedimientos que se señalan, y lo establecido en la legislación vigente en cada momento.

2. Hitzarmenak barnean hartzen dituen indarraldi zehaztugabea duten gai horien berraztertzea, edo Hitzarmenean gai berriak sartzeari, kasu guztietan, honako prozedura honen bitartez egingo da:

A) Urte bakoitzeko azaroaren 1etik abenduaren 31ra arte, negoziatzeko ahalmena duen edozein ordezkariak Hitzarmen Kolektiboak barnean hartzen dituen materia horien berraztertzea edo gai berriak Hitzarmenean sartzeari eska diezaike negoziatzeko ahalmena duten gainerakoei.

Errekerimendu horren kopia dagokion laneko agintaritzaren aurrean aurkeztu beharko da dagozkion ondorioetarako.

B) Errekerimendu hori egin ondoren, Negoziazio Mahaiak gai horien negoziazioa amaitu beharko du, egun horretatik zenbatzen hasi eta hiru hilabeteko epean, gehienez.

C) Negoziazioen hasieratik hiru hilabete igarotakoan ez bada akordiorik lortu eta ez badago negoziatorik martxan, bi alderdiek euren desadostasunak PRECO II Bitartekotza Prozeduraren eraginpean jarriko dituzte.

3. ZERBITZU PUBLIKOAK MANTENTZEA: Hitzarmen hau sinatu duten alderdiek zerbitzu publikoak mantentzeko eta hobetzeko duten borondatea eta konpromisoa adierazten dute eraginkortasunaren, efizientziaren, kalitatearen eta elkartasunaren irizpideen arabera.

4. Gazteriaren Foru Erakundeak, Ordezkaritza Sindikalarekin batera, kontratuen adjudikazioen baldintza teknikoek orrietan aurkitzen diren lan-baldintzei dagozkien klausulak egiaztatzeko, kontrolatzeko eta horien jarraipena egiteko mekanismoak ezartzeko konpromisoa hartzen du. Beraz, klausula horiek ez badira betetzen, dagokion administrazio-espedienteak irekiko da, eta, hala badagokio, kontratua suntsiaraziko da.

Azpikontratuaren xede diren eta etenik gabe ematen diren zerbitzu horietan, aurreko esleipenean zerbitzu horiek ematen zizuten langileen subrogazio-beharrak ezarriko da kontratazio-orrietan.

5. Behin-behineko kontratuak iraunkorrak ez diren zereginetarako erabiliko dira; ez dira erabiliko aurrekontuko plantillaren lanpostu finkoak betetzeko. Salbuetsi ahal izango dira bitarteko kontratazioak, hutsik dagoen lanpostua behin betiko bete arte edo lanpostu horretako titularra itzuli arte.

Kontratu horiek Gazteriaren Foru Erakundearen antzeko zereginak dituzten gainerako langileen kontratuen ezaugarri eta baldintza guztiak edukiko dituzte.

Aldi baterako kontratua egiten denetik urte eta erdiko epea igarotakoan, Gazteriaren Foru Erakundeak, langileen ordezkariari entzun ondoren, erabakiko du aldi baterako kontratupeko lanpostua aurrekontuko plantillan sartuko duen ala ez.

Aurretik adierazitakotik salbuetsita daude iraupen zehatza eta luzeagoa duten iraunkorrak ez diren zereginak egitea onartzen duten kontratazioak.

6. Nolanahi ere, goragoko kategoriatik bateko zereginak egiten dituen langileak kategoriatik hori eskuratuko du, barne-promozioaren prozesuaren barruan aurreikusitako prozedura baten bidez ez bada.

7. Hitzarmen hau sinatu dutenek Gazteriaren Foru Erakundearen eremuan izateko bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legean bildutako printzipioak aplikatzeko konpromisoa adierazten dute, bertako edukien garapen osoa erraztuz.

8. Enplegu Politika.-

Erakundearen Enplegu Mahai Paritario bat sortuko da langileen eta Erakundearen ordezkariarekin honako helburu hauekin:

- Plantillako Balorazio Azterketaren mantentzea eta eguneratzea egitea, baita Lanpostuen Zerrenda egitea ere.

- Egon daitezkeen lanpostu hutsak eta bete beharko diren lanpostuak betetzeko Lan Eskaintza Publikoaren deialdiak adostea.

- Urtero Lan-poltsen garapena aztertzea, Hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera.

9. Enplegua sortu eta banatzeko aldeko neurriak.

a) Aparteko orduak kentzea: Salbuespen gisa aparteko orduak egin behar direnean, denboraren truk konpentsatuko dira eta, ahal denean, kontratazioak egingo dira, ordezkariarekin edo ordezkariarekin.

b) Lanaldi osoa murriztea: Langileak lanaldia erdira murriztea eskatu ahal izango du; horrekin batera, haren ordainsari guztiak

2. La revisión de aquellas materias incluidas en el Convenio para las que se establecen una vigencia indeterminada, o la introducción de nuevas materias en el mismo, se efectuará, en todo caso, a través del siguiente procedimiento:

A) Dentro del período comprendido entre el 1 de noviembre y el 31 de diciembre de cada año, cualquiera de las representaciones legitimadas para negociar, podrán requerir al resto de los legitimados la revisión de aquéllas materias incluidas en el Convenio Colectivo o la introducción de nuevas materias en el mismo.

Copia de dicho requerimiento deberá ser presentado ante la autoridad laboral que corresponda a los efectos oportunos.

B) Formulado dicho requerimiento, la Mesa Negociadora, en el plazo máximo de tres meses a partir de dicha fecha, deberá concluir la negociación de dichas materias.

C) Transcurridos tres meses desde la iniciación de las negociaciones sin que se haya producido acuerdo y siempre que no existan negociaciones en curso, ambas partes someterán sus discrepancias al Procedimiento de Mediación del PRECO II.

3. MANTENIMIENTO DE LOS SERVICIOS PUBLICOS: Los firmantes de este Convenio manifiestan su voluntad y compromiso en el mantenimiento y la mejora de los servicios públicos, bajo los criterios de eficacia, eficiencia, calidad y solidaridad.

4. El IFJ/GFE se compromete a establecer, junto con la Representación Sindical, mecanismos de verificación, control y seguimiento de las cláusulas relativas a las condiciones de trabajo, incorporadas a los pliegos de condiciones técnicas de las adjudicaciones de contratos, de manera que el incumplimiento de tales cláusulas supondrá la apertura del correspondiente expediente administrativo, que en su caso puede llegar a suponer la resolución del contrato.

En aquellos servicios objeto de subcontratación y que sean prestados de manera continuada, se establecerá en los pliegos de contratación la obligatoriedad de subrogación de los trabajadores/as que vinieran prestando en la anterior adjudicación.

5. Los contratos temporales se utilizarán para tareas no permanente y no para cubrir puestos de trabajo fijos de la plantilla presupuestada. Se podrán excepcionar las contrataciones de interinidad en tanto se proceda a la cobertura definitiva de la plaza vacante o se produzca el reingreso del titular de la misma.

Estos contratos reunirán todas las características y condiciones que las del resto de trabajadores/as del IFJ que realicen funciones similares.

Transcurrido el período de un año y medio desde la contratación temporal, el IFJ, oída la representación del personal, decidirá sobre la inclusión o no en la plantilla presupuestaria del puesto de trabajo objeto de la contratación temporal.

Quedan exceptuados de lo establecido anteriormente, los supuestos de contratación que obedezcan a realización de tareas no permanentes pero de duración determinable superior.

6. En ningún caso, el empleado que realice funciones de superior categoría adquirirá ésta si no es mediante un procedimiento previsto dentro del proceso de promoción interna.

7. Los firmantes de este Convenio muestran su compromiso de aplicar en el ámbito del IFJ/GFE los principios recogidos en la Ley 2/2003 de 7 de Mayo, reguladora de las parejas de hecho, facilitando el pleno desarrollo de los contenidos de la misma.

8. Política de Empleo.-

En el Instituto se creará una Mesa Paritaria de Empleo compuesta por la representación del personal y del Instituto al objeto de:

- Realizar el mantenimiento y actualización del Estudio de Valoración de la plantilla, así como la Relación de Puestos de Trabajo.

- Acordar las convocatorias de Oferta Pública de Empleo para la cobertura de las posibles vacantes existentes y las plazas que se necesiten cubrir.

- Estudiar anualmente la evolución de las Bolsas de trabajo de acuerdo con lo establecido en el presente Convenio.

9. Medidas en favor de la creación y reparto de empleo.

a) Supresión de horas extraordinarias: La realización excepcional de horas extraordinarias se compensará en tiempo, con contratación suplementaria o sustitución de aquellos casos que sea posible.

b) Reducción de jornada completa: El empleado/a podrá solicitar la reducción de la mitad de la jornada con la reducción proporcional

proporzionalki txikituko dira, baita Gizarte Segurantzaren kotizazioa ere; hori egin ahal izateko, zerbitzuak eta jarduera motak ez dute lanaldia murrizten eragotzi behar. Ezetza langileen ordezkariari jakinaraziko zaio eta ezetza emateko zein arrazoi egon den azalduko zaio.

Laburtze horrek ordezkatzeari ekarriko du, baldin eta lantokiko buruak hala eskatzen badu. Lanaldiaren bigarren erdian egingo da murrizketa, horren aurkako akordioa dagoenean izan ezik; nolana ere, gutxienez, 6 hilabetez iraungo du.

c) Nahitaezko erretiroa:

1. Erretiroa derrigorrezkoa izango da hirurogeita bost urte betetzerakoan eta Gazteriaren Foru Erakundeak Hitzarmen Kolektibo honetan ezarritako metodoak erabiliz arrazoi hori dela-eta lanbide-kategoria berdinean edo lanbide-kategoria horiek eraldatzeagatik sortu diren lanbide-kategoria ezberdinetan hutsik geratuko diren lanpostuak betetzeko konpromisoa hartzen du.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritako erretirorako adina, langileak oinarri arautzailearen % 100 aplikatzeko beharrezkoa den kotizazioaldia lortu arte jardunean jarraitzeko eduki dezakeen aukera alde batera utzi gabe finkatuko da. Momentu horretan 1. puntuari ezarritakoa aplikatuko da.

3. Era berean, eraginpeko langileak Gizarte Segurantzaren legerian eskatutako gainerako baldintzak bete beharko ditu kotizazio gabeko erretiro-pentsiorako eskubidea eduki ahal izateko.

4. Gazteriaren Foru Erakundeak Batzorde Misto Negoziatzailea jakinarean gainean jarri beharko du honako gai hauen inguruan, Batzorde Misto Negoziatzaileak hala eskatzen badu: gertatu diren erretiroak, zein lanbide-kategorian gertatu diren erretiroak eta lanpostu hutsak betetzeko epea zein den. Batzordeak horri buruzko txostena igor dezake.

d) Bateragarritasuna: Bateragarritasuna emateak, legez bidezkoa denean, langileen ordezkariatzako organoaren txostena eskatuko du.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

1. Alderdiak Guztizko Baliaezintasun Iraunkorri loturiko problematika aztertzea eta, hala badagokio, eraginpekoak beste lanpostu batean koka daitezela sustatzeko neurriak kontuan hartzea adostu dute.

2. Era berean Batzorde Misto Negoziatzaile bat sortzea adosten da Gazteriaren Foru Erakundeak soldadak eta soldata-egiturak berrikusteko helburuarekin, kontzeptu horiek foru-eremuan dauden kontzeptuekin alderatuz, azterketa horretan oinarritzko ordainsariak nahiz ordainsari aldakorren kontzeptu horiek aztertuz (jaiegunak, gaueko lana...).

Batzorde horrek azterketa horren emaitza eta, hala badagokio, parekatze-proposamen bat aurkeztuko du Gazteriaren Foru Erakundeak Administrazio Kontseiluaren aurrean, 2007ko abenduaren 31 baino lehenago.

Behin eskumeneko organoek egindako proposamena onartzen dutenean, Hitzarmeneko Batzorde Misto Paritarioak Hitzarmenaren testuko eraginpeko artikulua egokituko ditu.

AZKEN XEDAPENA

Hitzarmen Kolektibo honetako aurreko artikuluetan jaso ez den orori dagokionez, Langileen Estatutua, Askatasun Sindikalaren Lege Organikoa eta gainerako Lege eta garatzeko xedapenak hartuko dira kontuan.

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEAREN ALDETIK

Itziar Aizpurua Agirre andrea

Pedro J. García jauna

LANGILEEN ALDETIK

Joseba Alvarez jauna

Joseba Pérez jauna

Jesús Angel García jauna

Antonio Pérez jauna

de todas sus retribuciones, incluida la cotización a la seguridad social, en aquellos supuestos en que ni las razones del servicio, ni el tipo de actividad así lo impidiera. La negativa será comunicada a la representación del personal, dándoles traslado de las razones de la misma.

Esta reducción conllevará aparejada la sustitución siempre que así sea solicitado por el jefe del centro de trabajo correspondiente. La reducción se realizará durante la segunda mitad de la jornada, salvo acuerdo en contrario, y en todo caso tendrá un plazo mínimo de duración de 6 meses.

c) Jubilación forzosa:

1. La jubilación será obligatoria al cumplir la edad de sesenta y cinco años, comprometiéndose el Instituto Foral de la Juventud a cubrir por los métodos establecidos en este Convenio Colectivo las plazas que por esta razón quedaran vacantes, en idéntica categoría profesional o en otras distintas que se hubiesen creado por transformación de las mismas.

2. La edad de jubilación establecida en el apartado anterior se considerará sin perjuicio de que el/la trabajador/a pueda optar por seguir en activo hasta alcanzar el periodo de cotización necesario para la aplicación de un porcentaje del 100% sobre la base reguladora, momento en el cual será de aplicación lo establecido en el punto 1.

3. Del mismo modo, el trabajador afectado deberá cumplir los demás requisitos exigidos por la legislación de Seguridad Social para tener derecho a la pensión de jubilación en su modalidad contributiva.

4. El Instituto Foral de la Juventud vendrá obligado a informar puntualmente a la Comisión Mixta Negociadora del Convenio de las jubilaciones que se vayan produciendo, las categorías profesionales en que tengan lugar y el plazo para la provisión de vacantes, cuando éste proceda. La Comisión podrá emitir informe al respecto.

d) Compatibilidad: La concesión de compatibilidad en los casos que legalmente proceda, requerirá informe del órgano de representación del personal.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

1ª. Las partes acuerdan estudiar la problemática asociada a la Invalidez Permanente Total y, en su caso, a considerar medidas tendentes a la recolocación en otro puesto de trabajo de las personas afectadas.

2ª. Asimismo se acuerda la creación de una Comisión Mixta Negociadora con el objetivo de revisar los salarios y la estructura salarial del Instituto Foral de la Juventud, realizando un análisis comparativo de estos conceptos con los existentes en el ámbito foral, contemplando en dicho análisis tanto las retribuciones básicas como todos aquellos conceptos de retribución variable (festivos, nocturnidad...).

Esta Comisión presentará el resultado de dicho análisis, y en su caso una propuesta de equiparación, ante el Consejo de Administración del IFJ, antes del 31 de diciembre de 2007.

Una vez aprobada la propuesta realizada por los órganos competentes, la Comisión Mixta Paritaria del Convenio adecuará el texto del Convenio en aquellos artículos afectados.

DISPOSICION FINAL

Para todo aquello no recogido expresamente en los artículos anteriores del presente Convenio Colectivo, se estará a lo dispuesto en el Estatuto de los/as trabajadores/as, en la Ley Orgánica de Libertad Sindical y demás Leyes y disposiciones de desarrollo.

POR EL INSTITUTO FORAL DE LA JUVENTUD

Dña. Itziar Aizpurua Agirre

Don Pedro J. García

POR LOS/AS TRABAJADORES/AS

D. Joseba Alvarez

D. Joseba Pérez

D. Jesús Angel García

Don Antonio Pérez